

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN INDUSTRIA ETA TEKNOLOGIAK (IKT). 2012. urtea

2012an, Euskal AEn, IKT sektorean enpresa-kopurua eta enplegua hazten

IKT sektoreko enpresek gehiago gastatzen dute I+Gn, berritzaileagoak dira eta beste sektoreetan baino gehiago erabiltzen dituzte teknologiak

Eustaten datuen arabera, IKT sektoreak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia), 2.082 enpresa eta 21.600 pertsona okupatu zituen barne; aurreko urtearen aldean %+1,3 eta %+0,4. Sektore honen negozio-zifra, 3.714,7 milioi, aurreko urtean baino %2,5 gutxiago; sortutako aberastasuna, balio erantsiaren terminoetan, 1.646,1 milioi, 2011n baino %0,5 gutxiago.

1. taula: IKT sektorearen magnitude nagusiak, lurralde-eremuaren eta jarduera-sektorearen arabera. 2012

	Enpresa kopurua	Landun kopurua	Negozio lopurua (1)	Valio erantsia (1)
IKT sektorea guztira	2.082	21.600	3.714,7	1.646,1
Lurralde Historikoa				
-- Araba/Álava	274	2.178	327,7	135,9
-- Bizkaia	1.241	13.369	2.581,7	1.112,0
-- Gipuzkoa	626	6.053	805,2	398,3
TIC sektorea				
Industria	66	4.008	438,2	173,6
Zerbitzuak	2.016	17.592	3.276,5	1.472,5

(1) Milioika eurotan


Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren industria eta teknologiak (IKT)

IKT sektorean I+G egin eta berritzaileak diren enpresen ehunekoa gainerako sektoreenaren oso gainera dago

IKT sektorean enpresen %9,0k I+G egiten du; gainerako sektoreetan %1,1ek; handia da aldea. Gainera, sektoreak –enpresa guztien %1,4- I+G egiten dutenen %11,3 biltzen du, eta enpresa-sektorearen I+G barne-gastuaren %6,4 -66,8 milioi- egikaritzen ditu.

Sektore honetan, 2012an, 1.257 langile aritu ziren I+Gn, dedikazio osoko baliokidetzan (enpresa sektore guztien %9,4); haien arteko 324, emakumeak. Gehiago zehaztuz enpleguan, dedikazio osoko baliokidetzan 656 ikertzaile aritu ziren, haien arteko 184, emakumeak.

1. grafikoa: I+G+b IKT sektoreko enpresetan eta sektore guztietako enpresetan. 2012. (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren industria eta teknologiak (IKT)

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoaren eta IKTren artean. 2012an, IKT sektoreko establezimenduen %27,8k berrikuntzako jarduerak egin zituzten; sektoreen guztirakoan %11,6k. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, lehen kasuan %56,6, eta sektoreen guztirakoan %28,6.

Berrikuntzan IKT establezimenduek 194,1 milioiko gastua egin zuten, enpresa guztienaren %7,5. Gastu horretatik, 149,8 milioi 10 langile eta gehiagoko establezimenduek eginak, tamaina horretako enpresen gastu guztiaren %6,9.

2. taula: IKT sektoreko barne Berrikuntzako eta I+Gko intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera. 2012 (%)

	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
Sektoreak guztira	1,62	0,86	2,12	1,23
IKT sektorea guztira	4,55	2,24	3,83	1,75
Lurralde historikoa				
-- Araba/Álava	3,16	1,95	2,55	1,34
-- Bizkaia	3,85	1,83	3,34	1,41
-- Gipuzkoa	7,58	3,80	6,44	3,32
TIC sektorea				
Industria	9,00	5,31	7,84	4,93
Serbitzuak	4,11	1,94	3,43	1,43

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioren kopurua)*100

(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioren kopurua)*100


Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren industria eta teknologiak (IKT)

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+Gko gastua negozio zifraren gainean (barne berrikuntzako eta barne I+Gko intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, IKT sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+bra gainerako sektoreetan baino. Berrikuntzaren intentsitatea 4,6 da sektorean eta 1,6 besteetan. Barne I+Gn ratioa 2,2 da IKTn eta guztirakoan 0,9.

Bai IKT teknologiak, bai merkataritza elektronikoa zabalduago daude IKT sektorean sektoreen guztirakoan baino

IKT teknologien erabilera oso zabalduta dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoen erabilerak, gainerako sektoreetakoaren gainetik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau, batez ere salmenten aldetik. Erosketak egindako establezimenduak %52,1 eta salmentak egindakoak %8,3 izan ziren; sektoreen guztirakoan %18,0 eta %4,6.

2. grafikoa: IKT teknologien erabilera. 2012. (%)




Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren industria eta teknologiak (IKT)

IKT sektoreak ondasunen kanpo merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua. Esportazioak 242,5 milioi (%1,2) izan ziren, guztirakoa 20.971,2; inportazioak 298,7 milioi (%1,9) guztirakoa 15.824,6.

Esportazioetan nabarmentzen dira: Osagai elektronikoak (%47,8) eta IKT beste produktuak (%31,7). Inportazioetan: IKT beste produktuak (%34,6), Osagai elektronikoak (%26,9), eta Audio eta bideo ekipoak (%19,3).

3. grafikoa: 10 langile eta gehiagoko enpresen alderaketa Euskal AEn eta Espainian (%). 2012



Iturria: EUSTAT eta EIN

Azkenik, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen IKT sektorearen Euskal Aeko eta estatuaren osotasunean, bada alderik adierazleetan. Euskadin enpresa berritzaileen portzentajea eta berrikuntza intentsitatea handiagoak dira; merkataritza elektroniko egiten duten enpresa portzentajea handiagoa da estatuaren osotasunean, eta salmentak egiten dituztenena zertxobait handiagoa erkidegoan IKT teknologien erabileran portzentajeak oso antzekoak dira.

Ohar metodologikoa:

IKT sektorea manufaktura eta zerbitzuetako sektoreek osatzen dute; beren jarduera nagusia Informazio eta Komunikazioaren Teknologien garapen, ekoizpen, merkaturatze eta erabilera intentsiboarekin lotuta dago. [Web Eustat. Ficha metodológica: Sector TIC](#)

Seriea berrikusi egin da, zerbitzu-inkestek eta SEC-2010ean oinarritzeak ekarritako estatistika-hobekuntzetatik abiatutik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

[Informazioaren eta komunikazioaren industria eta teknologiak \(IKT\). Prentsa-ohar gehiago](#)